Ohialaren erabilpena pinturan, Europan XVI.mendean hasi zen. Ohiala erabili baino lehen, horma eta egurra baliatzen zen, baina aldatu egin ziren joerak eta egurra baliatzeari utzi zioten ohiala baliatzen hasiz.

-Abantailak (ohiala): merkea da, arina da, prozedura errezagoa du hau sortzeak, egurrak mugimendua du (hezetasun asko sar daiteke, oihalak aldiz ez, beraz, gehiago irauten du), egurrak prestakin handia behar du laua izateko (ohialak ez du hainbesteko prestakinik behar), ohialean errezago margotzen da, XVI.mendean margolaria izateko baliabideak behar ziren eta ohialarekin margolari gehiago egotea ahalbideratu zen...

-Desabantaila: ahula da (desitsuratu edo apur daiteke erreztasunez)

Ohialaren erabilpena Venezian hasi zen. Hezetasun handia zegoen eta beraz, egurra ondatu egiten zen. Gero, Europa osora zabaldu zen.

## 2.1 OHIALA

### *EHUNAREN BILAKAERA HISTORIKOAK*

XVI.mendean hasi zen, nahiz eta aurretik ere baliatua zegoen. Haria egiteko, gorua baliatzen zen. Ehungailuaz, berriz, ehuna egiten da. XVI.mendean, ehun korapilo mota hauek: sarga (praka bakeroetan), tefetaia (tefetan) eta Veneziako "mantelilloa".

XVI.mendean, hariak oso lakarrak, irregularrak eta erliebedunak ziren, beraz, gaineratik margotzeko, prestakinak behar ziren.

XVII.mendean, ehungailu handiagoak ziren eta ehunak ere handiagoak beraz. Bilbea eta irazkia itxiagoak ziren. Kalamua erabiltzen hasi ziren. Buruska (espiga) izeneko lotailua baliatzen zuten. Ez da hain irregularra, baina eskuzko lana denez, ez zuten indar bera ezartzen leku guztietan.

XVIII.mendean, ehungailu mekanikoak erabiltzen zituzten eta ehun erregularrak lortzen ziren, gainera, oso itxia ziren eta beraz, ez zuten prestakin handirik eskatzen. Ohiala gero eta merkeago aterako zen, ehungailu mekanikoaz errezago egiten zelako.

XIX.mendean, prestakinarekin erosten da ohiala, beraz, mihisea izango da. Materialaren kalitatea jaisten da, baina artistaren sormena zabaltzen da merkeagoa delako. Formato estandarrak sortzen dira (Figura (f), Paisaje (p) eta itsastarra )

### *POLIESTER GAINEKO OLEOA*

XX.mendean. Pinturarako ez ziren materialak baliatu zituzten pinturarako. Momentuz ongi mantentzen da.

Julian Schnabel kamio baten toldoa baliatu zuen pinturarako, nahiz eta berez ez zuen funtzio hori.

Ives Klein Prestakin gabeko ohiala balaitzen zuen.

### *UZTAILEN BILAKAERA*

Mihisearekin batera erabiltzen hasi ziren. XVI.mendean erabiltzen hasi ziren. Lizarreko eta pinuzkoak ziren, baina kalitate txikikoak. XIX.menderarte ez du aldaketa handirik jasan. Gerora, uztailek abantailak jasan zituzten.

Lehen uztailek, hiltzeak behar zituzten, beraz, ez ziren erregulagarriak behin hiltzea sartuta. Oso handiak baziren, erdian gurutzaketa edo langa bat zuten. Ohiala mugitu egiten zen eta uztailea hiltzatua zegoenez ezin ziren erregulatu, berria egin behar zen erregulatzeko.

-berriketak-

-Honi erantzuna emateko, ziriak ezartzen zitzaizkien, uztailea handitzen zelako (ziri bikoitza ere izan dezakete indarra kontrolatzeko).

- Barneko ertza (uztailaren barnean dauden ertzak) alakatu (borobildu): ohiala ez abakitzeko.

Egurrezko uztaileak ez baditu zenbait baldintza betetzen, ohiala kaltetu dezakete.

### *OHIAL GAINEAN EZARTZEN DENA*

Ohiala uztailean ezarri eta prestakina ematen diote, non, 3 geruza ditu eta honen gainan pintura (aglutinatzaile eta pigmentua), azkenik, berniza izango du, baita ahutsa ere (patina) babestu egingo du.

-Prestakina: 3 geruza:

-Geruza isolatzailea (kola normalean) untxi kola (untxitik jaten ez denaz egosi eta ura lurrundutakoan geratzen dena untxikola izango da (oso itsaskorra)).

-Prestakina (erdiko jeruza): untxi kola +pigmentu zuria.

Kapa batzuk ematen zitzaizkion lautu arte. Lehen beruna baliatzen zen, baina oso pozoitsua zen.

-Inprimazioa: kolorea du beti aldatuz joan daitezkeenak. Inprimazioarekin, tonua hartzen du ohialak (beldur eszenikoa gainditzeko, hau da, oso zuria bada, beldurra ematen die marrazten hastea) kolorea ematen zion azalari. Efektu kromatikoak lortzen laguntzen dio artistari.

Gaur egun, artistek hormako pintura erabiltzen dute prestakin eran (hau bakarrik eman).

Ronda de dian, inprimazioko koloreak denborarekin eta hezetasunarekin azalerara atera zen eta beltza zenez, ronda de dia, ronda de noche izatera igaro ziren.

Inprimazio beltz eta marroi ilunak erabiltzea, inpresionismoan aldatzen ziren. Garai honetan, oleoak eginak erosi zitezkeen eta beraz, kanpora atera zitezkeen, gainera, koloreak argian duen eragina lortu nahi zutenaz, inprimazioa zuria izatera igaro ziren. Kuadro txiki eta argitxua ziren.

Inpresionismotik hona, aukera asko garatu dira. Prestakinik gabe, pasta asko eman behar da. Beste artista batzuek, prestakinari garrantzi handia ematen diote eta erliebea hartzen dute, dramatismoa ematen diotelarik.

-Prestakinean baliaturiko materialak

-Erretsinak (kolak dira) animalia edo landaretakoak izan daitezkeenak

-Pigmentu zuriak

-Untxi kola baliatzen da gehien.

-Kola gogorra idien apatxetatik ateratzen da. Oso kola gogorra sortzen da.



-Kaseina: esnetik ateratzen den nata

-Arrain kola

-Pigmentua

Azal polikromikoa da. Pigmentuak naturalak badira: minerala, landareak eta animaliak. Pigmentu sintetikoak: petrolotik ateratakoak.

-Kotxinilatik kolore gorria ateratzen da, non kaktusean dagoen animaliak

-Mineralak dira arrobietatik ateratzen direnak.

-Malakitatik kolore berdea ateratzen da.

-Zinabriotik gorria

-Azuritatik urdina

Motrailuan sartu eta birrindu egiten zituzten.

Gaur egun, gehienak sintetikoak baliatzen dira. Gainera, kolore gama oso zabala dago.

Edozein margok 3 osagai dituzte:

-Pigmentua(kolorezko ahutsa)

-Aglutinatzailea (itsasgarria, pigmentuari gorputza emateko) (koipeak, erretxinak, arraultza, animalia edo landare kolak etab.)

-Disolbatzaileak: aglutinatzaile eta pigmentua trinkoa geratzen denez, disolbatzailea baliatzen da (aglutinatzaile, aguarras, ura...)

Olio auek lortzeko era desberdinak daude:

Gehien erabili den aglutinatzailea, liho koipea da. Are eta kalitate gehiago izan, hobe mantentzen da pintura eta gehiago irauten du.

-Ekiloretik erabilitako olio ere, baliatu izan da. Errusian

-Lo belarra ere baliatu da.

-Intxaur koipea (gardena eta fina da) europar pinturan aglutinatzaile eran ere baliatu da

Oleoa lehertzeko behar bada aste - hilabete itsaron behar da. Honi aurre egiteko, kobaltozko lehortzailea asmatu zuten. Hau, pinturan sartzen da, lehortzea asko erreztuz.

Oleoan baliatzen diren disolbatzaileak:

-Veneziako trementina (pinuen erretsina da)erabilpen intensoa izan du, nahiko pozoitsua izan dena.

-Labanda: kolonia modukoa, hazietatik ateratzen da disolbatzailea

-Benzol: XIX.mendean erabiltzen hasi ziren, pozoitsua zen eta petrolotik eratorria zen.

## 2.2 OLIOA

## OLIOZ MARGOTZEKO TRATAERAK

Artista bakoitzak bere identitatea adierazten du, beraz, era desberdina du bakoitzak.

-Prozedura-

1. modua (dena oso zehatza)

1-Hasieran, dena ordenatzen du.

2-Zerua margotzen du(permanentea izango da)hasieratik daki zein helburu duen

3-Apurka-apurka, marrazten doa zati bakoitzari garrantzi bera emanez (ongi geratzen bada permanentea izanik

4-Detaileak pintatzen ditu.

2.modua

Dena batera egiten du, ez zatitan, pixkanaka. Koloreen arteko arremana zaintzen du. Hasieran, gauza bukatu gabe geratzen dira, baina gero, harmonia bilatzen die.

3.modua

Espresio handiko pintura da. Koloreak nahasten ditu, kuadroak adierazten dio artistari nundik jo. Ez du amaierako emaitzaren kontrol osoa, askatasun bat baliatuta. (Quincoces)

-Trataera fisikoak-

### LAUSODURA

Artistak, kuadroa egin eta kontraste gehiegi edo akatsen bat duenez, lausodura ematen dio, hau da, pintura aguarrasean disolbatua edo beste material batean disolbatua (disolbatzailea) eta beraz, emaniko geruza ia gardena izango da. Hala, tonua aldatzen dute koloreek, apur bat biguinduz kuadroaren zatietan ere eman daiteke eta kuadroaren hasieran edo amaieran eman daiteke . (Turner eta Rembrandt)

Margoa oso lehor egon behar da geruza hau eman ahal izateko.

SFUMATTO:

Ile motz eta gogorreko pintzelaz, kolore apur bat ipini eta difuminatuz, sortu zen lausodura. Hala, mugak desagertzen dira apur bat eta interesaren arabera.

TONU PINTURA(gehien erabiltzen dena izan daiteke)

Kolore gutxi batzuk proportzio ezberdinetan ematean datza tonalitate ezberdinak sortu eta kuadro harmoniosu bat eratuz. Artistak kontuan izan behar du baliatzen dituen kolore apurrak kuadro osoan zabaltzeaz.

### PINTURA ZUZENA

Gutxi pentsatzen dena eta behiotzetik ateratzen dena da. Askatasun handiz sorturiko pintura da. (Motherwellrodiloak baliatzen ditu)

## OREZTAPENA

Pegoteekin pintatzea, bolumenduna. Pinturak bolumena hartzen du, ez da gehiegi lantzen.

## IGURTZIA

Oreztapena ematen du eta gero presionatu egiten du kolorea zabalduz.

## FROTTAGE

Mihiseen atzean objektuak ezarri eta azpikoaren ehundura mihisean plasmaturik gertzen da, gainean pintura ematean. (txapona ipini azpian eta papera gainean gero arkatzez marrazeko).

### 2.3 TEMPLEA

4 mota daude:

- Landare gomazko tenplea (gouatxe) oso mateak, azkar sikatzen dira
- Animalia kolazko tenplea oso matea, azkar sikatzen dira
- Arrautzezko tenplea Gehien baliatutako tenplea (gorringoa, zuringo eta dena batera baliatzen da), oso disdiratsuak, azkar sikatu (minututan), baina egonkorak
- Kaseinatozko tenplea Esnetik ateratakoa, oso disdiratsuak, azkar sikatu (minututan), baina egonkorak

## ARRAUTZAZKO TEMPLEA

Kasu honetan, gorringoa hartzen da (baina denetik baliatu da):

- 1-gorringoa apurtu eta mintza kendu (oso freskoa izan behar da arrautza)
- 2-Barianteak sortzen dira botatzen dioten "Koipe" funtzioa betetzen duenarekiko; ura, xaboia, alkohola...Horren arin ez lehortzeko (minututatik, ordutara pasatzen zen), gero eta gehigarri kantitate gehiago, orduan eta gehiago kostatu lehortzeko. Hemendik abiatuta, arrautza kendu eta olio bakarri botatzen zioten oleoa (mihisea sortu zenean, XVI.mendean).
- 3-Aurreko nahasketa (emusionantea arrautza gorringoa eta koipeaz), pigmentua botatzen du.
- 4-kristalezko tresnaz nahasi dena ongi integratzeko

-prozedura-

Kapaka doa koloreak eman eta aurrekoarekin nahasiz, kolore berriak lortuz.

### 2.4 PINTURA SINTETIKOAK

Europako margolariek, artearen bilakaera markatu dute. Europa, aldaketen motorra zen, XX.memdean, II.mundu gerra eman zen arte, non, Europak garrantzia galdu (politiko, ekonomiko, social...) eta protagonismoa zabaldu zen. Hala, artisa ugari Europatik Estatu Batuetara joan eta arteak aire berri bat hartu zuen ez baizuten aspaldiko ohiturarik (ez zuten ganbararik). Gainera, bertan dirua eta mugimendu

kulturala zegoen. Artistek, honengatik, teknika eta ideiak aldatu nahi zituzte eta beraz, pintura industrialekin hasi ziren lanean.

3 mota, industriarako helburuaz:

-Kolore polimeriko akrilikoak

-Kolore binilikoak

-Kolore alkidikoak

Mota bakarra arterako asmatutakoa:

-Kolore akrilikoak

## KOLORE AKRILIKOAK

Plastikosoak dira, uraz disolbatzen da, merkea eta bizia da)munduan oso zabaldua

Desabantailak: oso plastikoak, oso azkar lehortzen da (desabantaila izan daiteke helburuaren arabera)

Abantailak: pintura mota bat era ezberdinetarako baliatzen da

Pollok-ek dripping-a egiteko akrilikoa baliatu zuen azkar lehortzen zelako.

Akrilikoa ur askoz nahasten bada akuarela eran balia daiteke

Akrilikoa maneilagarria da, izan ere, produktu ezberdinak emanda, akrilikoa loditu, lehortzea galarazi...hortzen da, hau da, honen ezaugarriak alda daitezke.

Bestalde, askatasun handia ematen dio artistari (oreztapena, tonu lauak...)

-Prozedura-

1-Erretxina akrilikoa (kola zuri hanztekoa) eta pigmentua nahasten dira

### 2.5 BERNIZAK

- Bernizak eta azal polikromatuari eragiten diona):



0. Disdiratsua.
- a. Satinatua.
- b. Matea.

“Vernissage” = gaur egun, *inaugurazioa* esan nahi du.  
Aspaldi, artistak azken berniza ematen zuen egun garrantzitsua iradokitzen zuen.

- Gaur egungo bernizak:
  - Berniz bigunak: zuhaitzen izerditik ateratakoa solido egoeran, koipetan, alkoletan, aguarrasean edo horrelako produktu batean

disolbatua berniza lortzen da (Alatziga, goma laka, sandaraka, dammar-a...)

- Berniz gogorak: koadroa beira izango balu bezala geratzen da, oso disdiratsua.
  - o Anbar (erretxina fosilisataua).
  - o Kopal (hala ere, anbarretik dator).
- Berniz sintetikoak (Gaur egun gehien erabiltzen direnak).

## *TAPIZEA*

Behetik gorako hari gogorraz ezartzen dira, non, koloretako hariak ezartzen diren tartean forma ezberdinak sortuz. Oso konplexua da eta kolorerik baliatu ez arren, Arte historialariek inturan sartu behar dela diote.

### 2.2 EGURRA/ZURA

Ohiala balatu aurretik, egurra baliatzen zen, non, lan handia egin behar izatea behartarazten zuen.

Erretaulen atzean, zijiluak aurki daitezke, non, gremioena zen, hau da, artisauarenak. Hala, pertsona honek eginiko ibiibidea jakin daiteke.

-Enbor zati batez atalak-

Enbor batek erdian, bihotza du eta egitura aldetik, zati gogorrena da. Erdian, zurgiharra dago, hau, egur arrunta da. Kanpoan berriz, zurgizena dago, gazteena da eta egur gazte eta bizia da. Kanpokoa biguinagoa izango da kanpokoa baino.

-Prozedura-

Zerra automatikoa heldu arte, eskuzko lana zen enborra ebakitzea eta lan zaila zen. Ateratako oholak, lehortzen utzi behar ziren. Europa osoan baliaturiko egur gaineiko pintura hobe kontsebatu da iparraldean hegoaldean baino, izan ere, Iparraldea, kanpoan utzi zuten lehortzen (kanpoarekin kontaktua zuen leku batean) eta akondizionatu egiten zen.

Zumaiako erretaula, Holandatik zetorren (europa iparraldea) eta lan fina da honakoa.

Lehenik, zabalean mozten zuten, baina gero, goitik behera xaflak eratuz.

## MIHIZTADURAK

Helkartzeak alegia.

1-Mihiztadura bizia: bi ohol hartu eta idi kolaz biak itsatsi.

2-Ziria edo Falka: bi ohol xaflak, egur gogorrez eginiko ziri batez lotu biek erdian zulo bat dutelarik. Kolaz errefortzatzen da

3-Mihi faltsua: Bi xaflatan kanalak egin eta erdian egur gogorrez eginiko mihi faltsua ezarri. Kolaz errefortzatua.

4-Egur erdiko sistema: bi xaflatan eskaloiak egiten dira eta gero, kolaz itsatsi.



5-Miru buztana (txoriari erreferentzi eginez):triangelu itxurako zulo bat zizelkatzen da eta bertan egurrezko beste zati bat ezartzen da presiopean. Zuloak lehenbiziko zentrimitroak baino ez ditu hartzen.

--Miru buztan bikoitza ere badago (erronbo itxura)

Urteak igaro ahala, apurtu egiten ziren enkajaturiko piezak

6-Todelarra: Aurrekoari konponbidea eman nahiean sortu zen. Grapa erakoak dira eta atzean ezartzen da. Kontrako alderantz ezartzen dira kontrako indarrak sortzeko. Laukizuzen txiki itsurakoak dira piezak.

Mihiztatu ondoren, egurren artean zuloak geratzen diren eta hauek estaltzeko, iztupak (zuntz vegetal lehorrak) baliatzen ziren (bertan sartu eta kola eman kanala estaltzeko). Sistema hau, ez zen ona, beraz, mihiztaduren gainean, ohiala itsatsi zuten, hasieran zerrendetan eta gero ohial handi bat ohol guztien gainean. Atzean ez zuten ezer egiten ahala, eta aurrekaldean ohiala zuten.

Monalisa egur gainean dago egina: arrakalak (krakeladura) du eta zuntzaren (eraztunak) zentzua hartzen dute.

Orain artekoak, lehengo sistemak ziren: lan handikoak. Gaur egun, egurra egina erosten du artistak.

-Aglomeratua: eguz zati txikiz eta kolaz egiten da (soberakinez) eta presiopean ezartzen da. Egur gogorra da.

-Egur xaflastatua: enbor batetik xafla finak ezartzen dira bata bestearen gainean. Gero xafla hauek itsatsi egiten dira presioaz.

-Tablex: zerrautsa kola berezi batez itsatsia eta prentsatua dago, oso gogorra bilakatzen duena. Alde bat laua da eta beste aldea zimurtsua da. Artistei azal zimurtsua gustatzen zaie ohial modukoa izan daitekeelako.

-DM: berria da eta egur ahutsaz egiten da. Egurra birrindu egiten da, batu eta kolaztatu egiten da, baita prentsatu ere.

Egurra hasieran oso baliatu zela ikus daiteke artearen historian, gero, erabiltzeari utzi zen eta XX.mendetik aurrera, egurra gehiago baliatzen hasi dira merkea delako.

## MARKETERIA

Egur xaflaka eransten joaten da kolore ezberdinetakoak direlarik.

### *EGUR GAINEKO APAINKETA TEKNIKA*

Egur gaineko artisautza bakarra, eliza edo jauregitan zegoen ezarria. Polikromia ugariak ziren eta urreztatuak ere bai, dekoratua izatea behar zelako.

## URREZTADURA

Pintura moduan baliatzen da. Urreztadura egiteko urrezko xaflak baliatzen zuten (papel albal eran), hau, urrezko txanponetatik egiten zituzten.

-prozedura-

1-Txanpona puxketan apurtzen da.

2-Larruzko zati bat hartu eta puxka horietako bat ezartzen da erdian.

3-Gainean, beste larru bat ezartzen da eta honen gainean beste puxkat bat (sándwich eran), paquete bate gin arte

4-Pakete edo multzo hau, beste larru batez estali eta lotu egiten da

5-Mailu batez, kolpeak ematen zitzaizkion paketeari, bertako materiala xaflatu arte (8-10h kolpeka ibili behar zen).

Urrezadura, gremioen garaian, urrezadura egiteko pertsona espezifikoko bat zegoen. Hasieran, iztuko izeneko pintura ematen zen egur zati garbian. Sikatu baino lehen bigarren geruza eman behar da (nahi bezainbeste geruza). Gero, bigarren geruza ezartzen da: bola buztin gorria. Hau, uretan sartu eta likido dagoenean, egurraren gainean ezartzen da. Gero, Agatazko harria pasatzen da bola leundu. Azkenik, urarekin, urrezko xafla ezartzen da (ez du itsasgarririk behar itsasteko), bestalde, agata harria berriro pasatzen da azken geruza leuntzeko.

Japonian, Ekialdean... oso baliatua izan da urrezadura, ez bakarrik Europan.

Gaur egungo diseinatzaileek urrezadura bereganatu eta apainketan sartu dute, urre faltxua erabiliz.

#### *KORLADURA*

Europan 1500-1600 urteen inguruan, urre ugari zegoen Amerikatik lapurtu eta ekarri zutelako, beraz, herri txikienetan ere urrea zegoen. Momentu batean, urrea agortzen joan zen, beraz, ezin zuten urrezadura hainbeste baliatu. Sistema bat asmatu zuten hau konpontzeko, hau da, metal pobreagoak zirenen xaflak baliatzea (zilarra, brontzea...) eta gero urre itxura emateko pintatzea berniz batez (korlaz). Hala, zilarrak urre kolorea hartzen zuten.

#### *ESTOFADURA*

Urrezko xafalaren gainean marraztea da. Egurrezko eskulturan urrezadura egin eta landare motiboak pintatzea. Oso zaila zenez pintzel batekin hain irudi txikiak egitea, esgrafiatua asmatu zuten (gainetik kolorez pintatu formak emanez urrezadura azpian zegoela)

#### *ESGRAFIATUA*

Estofaduraren berdina, baina lehenik dena estaltzen da urrezaduraz, eta gero tenplea aplikatzen da. Azkenik, garfio izeneko tresnaz, soberako pintura kentzen da motibo naturalen irudiak agertuz.

#### *BROKATU APLIKATUA*

1500 ing. Asmatu zen Alemanian. Alemaniatik, Holandara joan zen eta gero, Euskal Herrira itsas merkataritzagatik (hemen eskolak egin ziren eta bertan irakatsi).

Berun, harri edo egurrezko trokelan egiten ziren grabatuak (barruraka). Ondoren, eztaizuzko xafla hartu eta gainean ezartzen zuten, kolpeka, berunezko motiboak artzen zituearik beeganaketa edo trasferentzia. Dirdira ez duen xaflaren aldean, argizari eta kola nahasketa bat botatzen zen gorputz handiagoa har zezan, azkenik, eskulturan itsasteko.

#### *PASTIGLIA*

Ohore itsaskor bat egiten da pastiglia (karbonato kaltzikoa, igeltsua, kola, koipea... gauza asko sar daitezke) eta hau, manga pasteleran sartu eta indarra eginez, pasta jausi eta formak ematen ziren. Forma hauek itsatsita geratzen ziren eta lehortu eta oso gogor geratu ondoren, gainean urrezadura edo nahi den beste teknika batzuk aplikatu daitezke.

Apainketarako baliatua izan da asko.

### **PURPURINA**

Erdi aroan, urrezko xaflak erabiliz egiten zen. Motrailu batean urrezko xaflak eta gatza kokatu eta apurtu egiten da urrezko xafla. Ura botatzen zaio gero, gatza disolbatu eta bereizteko. Azkenik, soberako ura kentzen da urrea pixutsua delako eta azpian geratzen da.

Purpurina, kola batez itsasten da artelanean.

### **3.HORMA PINTURA**

Lehen euskarria izan da historian, lehen gizakiak labar pinturak egiten zituen ez dakite zer adierazteko.

Horma pintura teknika perfektua bilatzea izan du xedea, hau, freskoa da. Erromako inperioan, eman zen freskoa lehen aldiz eta teknika iraunkor eta egonkorra da, beraz, lekua; askotan baliatu zuten teknika hau. Erromatar inperioa desagertuta, teknika desagertu zen Errenazimendurarte.

Errenazimenduan, konturatu ziren, freskoa ezin zutela aurrerakuntza handirik eman, grafitirarte.

### **FRESKOAREN OSAGARRIAK**

2 osagai behar dira: gatz gabeko área (erreketakoa adb.) eta karea.

Karea, kare harrokatik ateratzen da. Hau, berotu eta aldaketa fisiko-kimikoak eman eta uretan sartu eta gero, erabil daiteke.

2 osagai hauek proportzio espezifikoan nahasi eta paretan eman daiteke

*-prozedura-*

2 geruza eman:

(1.geruzak) -Arriccio: hondar asko eta kare gutxi du

(2.geruzak)-Intonakoa ematen da arriccioaren gainean : erdi eta erdi

(3.geruzak)-Ezetasuna mantentzen den birtean pigmentu eta ura ematen dio artistak

6-9h bitartean mantentzen da Intonakoa bustia eta pintoreak orduan baino ezin da pintatu, izan ere, pigmentua eta ura intonakoak xurgatzen du, ez da azalean geratzen.

### **BILAKAERA HISTORIKOA**

Paleolitikoan hasten da bilakaera. Bertan, pigmentu mineralak baliatzen ziren labar pintura egiteko.

Salto handia: Egipton, Intonakoa baliatu zen (karea) eta tenplea erabiltzen zuten.

Beste salto bat: Grezian, buztina eta lastoa baliatu zuten pezoa egiteko (adobe erakoa) euskarri eran

Beste salto: Indian, igeltsua baliatzen zuten, gero Europara zabaldu euskarri hau

Beste salto: Etrurian, karea baliatzen hasi ziren eta fresko itsura zuten

Beste salto : Grezian hasi ziren freskoa baliatzen, baina gutxi kontserbatzen dira (Erromatarrek ostu)

Beste salto: erromako inperioarekin gailendu freskoa, barneko espazioak apaindu eta aberasteko, baita beren boterea adierazteko ere.

Erromako pinturan 4 estilo sortu ziren:

1. Inkrustaziozkoa: marmola imitatzean datza, izan ere, marmola oso material aberatsa da eta hau falta zenean, hau imitatzen zuten aberastasuna erakutsi nahi izateko.
2. Arkitektonikoa: Inkrustazioa egiteaz soilik aspertuta, elementu arkitektonikoak imitatzen hasi ziren
  - 2.1 Eszenek garrantzi gehiago hartu
3. Ornamentaziozkoa: elementu arkitektonikoak garrantzia galdu eta eszenek garrantzi gehiago
4. 2. Eta 3. Estiloen nahasketa da: dekorazio lineala eta bakuna da.

Erromako inperioan, gusto honekoa zen eszena sexualak ezartzea logeletan, baina erromatar inperioa amaitu zenean, sentsibilitatea galdu zen, baita fresko eta askatasun hori ere. Gero, arriccio bakarrik baliatzen zen eta tenple pobre bat, gainera gai bakarra zegoen: Jainkoa. Apainketa pobre eta eskaxekoak ziren.

Erromako inperioan, mantendu egin zen freskoa Inperio Bizantziarrean, baina jainkoaren gaia baino ez zen lantzen. Gainera, arauen barruan egon behar zen eta arauak oso mugatuak ziren.

Europar, Inperio Bizantziarreko ideak jarraitu zituzten. Bertan, teknika galdu zen: ez zegoen pintura sentsiblerik, didaktikoa zen, perspektiba galdu zen..

Apurka apurka, Erromanikoan, teknika berreskuratzen hasi ziren karea eta hondarra baliatzen zutelarik, baina ez zuten anatomía berreskuratu eta ez dago espaziorik.

Gotikoan, berriketak sortu ziren. Giottoarekin berreskuratzen joan zen teknika, anatomía lanketa, kolore degradazioak, itzalak... emanez.

Gotikoan batez ere 2 berriketa teknikoe eman ziren:

1. Sinopia: teknika aldetik, lehenik irudi prestagarria egiten dute
2. Lana, lanalditan egiten zen (giornatta), hau da, intonakoa egun batean landu daitekeen espazioan baino ezin zen eman aurreko irusia estaltzen zen baino artistak buruan zuten irudia

Anatomia, sakontasun saiakerak, perspektiba, tamaina... kontrolatzen joan ziren pixkanaka.

Errenazimenduan sinopia alde batera utziko da eta bi teknika berri erabiliko dira:

1. Estarzidoa. Paper handia hartu eta artistak bertan egingo du bozetoa, puntutxuekin sortzen du. Ondoren, pigmentua

kotoi edo zapi batez, zuloetan zehar pasatzen da eta horman puntuak sortzen dira. Gero, horman puntuak lerroen

bitartez lortzen ditu. Askoz errazagoa izango da ezabatzea.

2. Kartoia. Intonakoa horman kokatzen da eta gainetik, papera, indar apur bat eginez erliebea hartzen du hormak

Fresko teknikak, muga batzuk ditu eta erreazimenduan topatu zituzten, jada ezin zuten efektu berririk atera. Rafael-ekin dena emanda geratu zen, ezin zen gehiago atera. Freskoa berreskuratu eta erliebea ematen saiatu ziren baina ez zen egokia eta ezin izan zuten gehiegi berritu. Ondoren, olioaz hasi ziren jarduten.

Barrokotik XX.menderarte ez zen aldaketarik egon eta eliza eta jauregietan ematen ziren. Gai erlijiosoak lantzen ziren hauetan. Esparru faltsuak agertzen hasi ziren (pareta apurketa faltsuak...), morteroak (eskaiolarekin erliebetxo ematea adb.), mosaikoa eta horma pintura nahasi, marouflee (ohiala horman itsatsia (lehenk artistak pintatu eta gero itsatsi)), urrezadura eta horma pintura..., baina beti apainketa da, ez du esanahirik. XX.mendean, joera amankomun hau amaitu zen Mexikoko Iraultzaren ondorioz, izan ere, mexikoko biztanleei iraultza zer zen zabaldu nahi zien mezu soziala (Siqueiros, Orozko, Rivera). Material berriak baliatu zituzten (margo sintetikoak, zementoa euskarri eran...). Emaizta batzuk onak eta iraunkorrak ziren eta besteak txarrak, edonola ere, pinturan aire berria sartu zuten.

-Ondorego horma pintura grafittia izan zen eta New Yorkeko hiri handian existentzia azpimarratzeko: Taki 183.

- Haring New Yorkeko metroan hasi zen ere bai, papin hantzekoak egiten errotulagailu batekin, arrakasta handia izan zuen, berritzailea zelako, beraz, arte galerietara salto egin zuen.

-Basquiat New Yorken hasi zen ere bai. Andy Warholek ikasle izandakoa. Mezu batzuk pintatzen hasi zen eta nahiko kontserbatzailea izan zen, drogazalea eta bizi laburrekoa.

-Banksy: teoria ezberdinak honen inguruan

-Alexandre Orion: brasildarra da eta salaketa handia egiten du pintura ipini beharrean, zikinkeria kentzen du (kutsadura alegia)

Horma pinturak, arkitekturari laguntzeko ere balio du, ikonografia edo diseinua laguntzeko.

#### **4.MOSAIKOA**

Mosaikoak teselez eginak daude eta barnean morteroa (karea eta hareta) dago. Fresko dagoela sartzen dira teselak. Teselak kubikoak izateko, ziri bat baliatzen da: harria zirian ezarri (goitik behera) eta mailuaz golpea ematean, harria zuzen apurtzen da.

Sailkapena, 4 mota:

-Litostratoa: zaharrena da eta batez ere lurrean dago. Urarriz betetzen da, hau da, erreka harriz egiten da. Lehenik morteroa ezartzen da eta gero, erreka harria ezartzen da indarrez.

-Opus sectilea: marmola baitzen da xafla handietan, nahi bezelako forman. Lurrean zein hormetan ezartzen da, kolore askotakoa eta burdinezko zerrenda bat ezartzen da xaflak lotzeko.

-Opus tessellatum: teselak dira eta erregularrak. Motibo geometrikoak egiteko baliaua, errepikatzen direnak.

-Opus vermiculatum: teselak baliatzen dira, baina irregularrak eta forma askotakoak dira aukeraturiko irudira moldatzeko.

## BILAKAERA TEKNIKOA

Lehen mosaikoak harri arruntez egin ziren, inguruko harriak erabiliz. Geroago, kolore gehiago erabiliko direnez, urrunago joan beharko dute harri bila. Beranduago, harri erdi-bitxiak erabiliko dituzte. Baita urrea sartu zuten. Baina urrezko xafla, harri gainean jarriko da eta beiraz estaliko da.

## ENKAUSTIKA

Grezian lehen aldiz atera zen. Pigmentua argizariz nahastuta. Kolore biziak lortzen dira. Espatulak bero egon behar dira pigmentuak bezala.